



❖ NAZIOARTEKO IGERIKETA TXAPELKETA-GAUR PACO YOLDIN

Mañel Aizpurua eta Olatz Altuna, nazioarteko igerilari onenekin lehian gaur

Nazioarteko Igeriketa Txapelketa jokatu da gaur, goiz eta arratsalde, eta mundu mailako igerilari ugari izango dira bertan. Mañel Aizpurua eta Olatz Altunak Euskal Herriko Selektzioarekin hartuko dute parte.

URTEKO zita garrantzitsuena da gaur, goiz eta arratsalde Donostiako Paco Yoldi igerilekuan, eta bi igerilari Euskal Herriko selektzioarekin hartuko dute parte. Aizpurua 50m eta 100m libre

probetan hartuko du parte, eta Altunak 50m libre eta 50m tximeletan. Hauekin batera, beste 24 igerilari ariko dira Euskal Herriko selektzioan, tartean, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, arabarrak eta nafarrak.

Espainiko talde garrantzitsuenak ere Donostian izango dira gaur, hala nola, Sek Sierra Oeste, Alcobendas, Onda-

rreta Alcorcon eta Castilla Burgos taldeak.

Eta Nazioarteko igerilari ugari ere bilduko da gaurkoan bertan, Ukraina, Italia, Errumania, Eslovenia eta Ipar eta Hego Amerikakoak besteak beste; hauen artean, izen esanguratsuenak ondorengoak dira: Emil Tahivoric, Dragos Agache, Federico Tu-

rrini, Dennis Dubrov, Chiara Boggiato, Ganna Dzerkal eta Melanie Costal.

Goiz eta arratsalde

Bi txandatan jokatu da txapelketa. Goizeko 10:00etan kanporaketak jokatu dira, eta arratsaldeko 18:00etan finalak. Azken hauek EITBn zuzenean ikusteko aukera izango da. ||

❖ PELOTA

Hernaniko 4¹/₂ko finalerdietako bi partidu, bihar

Hernaniko lau eta erdiko txapelketa finalerdietan da, eta bihar senior mailako bi partidu jokatu dira. Aurrenekoan, Iñaki Esnalek Ioritz Arrietaren kontra jokatu du, eta bigarrenengan Paul Ojuelek Xabi Errastiren kontra. Partiduak 19:30etan hasi dira, kiroldegian. ||

❖ UME JOLASAK

Bideoa, jolasak eta tailerrak gaur, Atsegindegian

Umeentzako jolasak antolatu ditu Udalak Gabonetan, eta gaur, goizeko 11:00etatik 13:00etara danetatik izango da Atsegindegian: bideo emaldia, aurpegiak eta mandalak margotzeko tailerrak, lan-kidetza jolasak, eta abar. ||

❖ ITURRITXO

Umeentzako haur txokoa gaur, elkartean

Urteroko ohiturei jarraituz, Iturritxo elkarteak umeentzako haur txokoa antolatu du elkartean. Jokoak goizeko 11:00etatik 13:00etara izango dira, elkartean. ||

❖ BERRIAK

Gaur banatuko dituzte Kabalgatarako jantziak

Errege Kabalgatan laguntzaile aterako diren neska-mutilei gaur banatuko dizkiete trajeak: Biterin, 18:00etatik aurrera. ||

❖ UDALA

Egutegiak, eskuragarri

Hernaniko Udalak 2011ko egutegia kaleratu berri du, eta hernaniarrek eskuratzeko aukera dute udaletxetik pasata. Gai nagusia 1936ko gerra da. ||

❖ UDALA

2011n ordaindu beharreko zergen egutegia zehaztu dute

Guztira sei zerga dira: batzuk aldi batean ordaintzen dira, eta besteak zatika.

HERNANIKO Udalak zehaztu ditu 2011n herritarrek ordaindu beharreko Zergak, eta hauen datak, hau da, Egutegi Fiskala. Sei dira guztira: Zerga batzuk urtean behin ordaintzekoak dira, aldi batean alegia; beste batzuk ordea, zatika ordaindu beharko dira, urtean zehar. Zergen Egutegi Fiskala Ogasun eta Ondare Batzordeak onartu zuen 2010eko azaroaren 18an, aho batez, eta abenduaren 23an kaleratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Sei zerga, guztira

Sei Zerga dira hasiera den urte berrian ordaindu beharrekoak. Aurrenekoa ibil-

gailuena izango da, aldi batean ordaintzekoa; epea otsailaren 21etik apirilaren 8ra jarri dute. Honekin batera, beste hiru zerga izango dira urtean behin ordaintzekoak: Ondasun higiezinaren gaineko zerga, Ibilgailuen espaloi bidezko sarrerari dagokion zerga, eta ekonomia jardueraren gaineko zerga.

Gainontzeko biak, urtean zati ezberdinetan ordaintzekoak dira. Ur hornikuntzaren eta estolderiaren zerga lau hileka ordaintzen da, eta 2011n hiru ordainduko dira: aurrenekoa 2010eko eta beste biak 2011-kakoak. Azkenik, Hondakin bilketaren tasa bitan ordaindu beharko da, sehileka. ||

ZERGAK

- Trakzio mekanikoko ibilgailuak ⇒
- Ur hornikuntzaren eta estolderia zerbitzuaren tasa, 2010eko 3garren lauhilekoa ⇒
- Hondakin bilketaren tasa, 2011ko 1go sehilekoa ⇒
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga ⇒
- Ibilgailuen espaloi bidezko sarrerari dagokion zerga ⇒
- Ur hornikuntzaren eta estolderia zerbitzuaren tasa, 2011ko 1go lauhilekoa ⇒
- Hondakin bilketaren tasa, 2011ko 2garren sehilekoa ⇒
- Ekonomia jardueraren gaineko zerga ⇒
- Ur hornikuntzaren eta estolderia zerbitzuaren tasa, 2011ko 2garren lauhilekoa ⇒

EPEA

- 2011ko otsailaren 21etik apirilaren 8ra ⇒
- 2011ko otsailaren 21etik apirilaren 8ra ⇒
- 2011ko martxoaren 31tik maiatzaren 13ra ⇒
- 2011ko maiatzaren 16tik uztailaren 1era ⇒
- 2011ko maiatzaren 31tik uztailaren 15era ⇒
- 2011ko ekainaren 20tik abuztuaren 5era ⇒
- 2011ko irailaren 2tik urriaren 21era ⇒
- 2011ko urriaren 3tik azaroaren 11ra ⇒
- 2011ko urriaren 17tik abenduaren 2ra ⇒

IRRIGOENEA OKINDEGIA

EGUNEROKO OGI BEROA

GAZTELOKO PASTELAK eta TARTAK ENKARGUZ
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

BARIETATE HAUNDIA INTEGRALETAN:

OJALDREZKO PALMERAK
KURASAN ZEREALDUNA
MADALENAK
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

ETA ASKOZ GEHIAGO !!

Lizeaga 1 (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25
HERNANI

AMAIA

ARRATZAK ITSASBIAK

FRESKO ETA IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

Adarraga

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

PEÑA

OKINDEGIA - JANARIDENDA

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103 ☯ FARMAZIAK ● Egunez: Castilla Urbietia 7 - 943 552941 ● Gazez: Chucua Kardaberaz 48 - 943 551793

GAUR Hego aldeko haizearen eraginez temperatura epela izango da. Erdi mailako lainoak izango dira, eta arratsaldean eguzkia nagusituko da. Min.10° / Max.15°

BIHAR Ez da aldaketarik izango. Temperatura epela izango da eta ostarteak zabalduko dira. Aldaketa bakarra haizearen indarra izango da; zakarrago ibiliko da. Min.10° / Max.15°

❖ HERNANIN ZERO ZABOR

Konpostatzaileen topaketa gaur, tailer moduan

Bilera Biterin izango da, gaur, iluntzeko 19:30etan hasita. Helburua konpostatzaileak elkar ezagutu, eta euren esperientzia kontatzea da.

HERNANIN 700 familiatik gora dira etxeko hondakin organikoak autokonpost bidez birziklatzen dutenak. Eta hain zuzen ere, familia horiek bildu nahi ditu gaur Hernanin Zero Zabor taldeak, Biterin egingo den aurreneko topaketan. Topaketa arratsaldeko 19:30-etan hasiko da, eta tailer modura antolatu dute. Taldeak adierazi duenez, helburua da etxean konposta egiten ari diren herritarrek elkar ezagutzeta, batzuk eta besteak dituzten martingalak elkarri azaltzea, eta egon litezkeen arazo txikiei buruz hitz egiteko aukera izatea.

Taldeak bilerara azaltzeko gonbidapena egin die, bai etxeko baratza edo jardin muturrean konposta egiten dutenei, eta baita ere, aurrea begira horretan hasteko interesa dutenei.

«Atez atekoa martxan jarri denetik gora egin du» Zero Zabor taldeak adierazi duenez, 2007an 156 familiak egiten zuten konposta Hernanin, eta Atez Atekoa martxan



Hernanin 700 familiak egiten dute konposta.

jarri denetik 700 familiak egiten dute: «familiako hiru pertsona kontatuz, 2.100 hernaniar baino gehiagok egiten dute konposta, eta urtean 285 tona baino gehiago birziklatzen dute. Gaurkoan egiten dutena

herriari aurkezteko aukera izango dute. Bilketa, garraioa eta tratamendua nolakoa izaten den erakutsiko dute, eta baita pausu guzti horietan aurrezten den energia eta kutsadura ere». II

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Barkamena eskatzen dut Hernaniko Kronikak abenduaren 7an kaleratu zuen alean jartzen zuen: «Hernanin diru-sarrera hauen partidak (paperaren eta plastikoen salmenta) jaso ez izanak, zurrumurru asko sortzen ditu, tartean, Atez Atekoak sortzen duen galera...». Egunkari berean, hilaren 19an, ondorengoa argitaratu zen: «898.000 euroko defizita izango du Atez Atekoak».

Borroka mediatiko hau kezkarria iruditzen zaigu batzuei, behin eta berriz gai berari buruz ari garelako.

Hondakinen kudeaketa, orokorrean, defizitarioa izaten da. H1eko bozeramaileak adierazi duenez, 2011n, Hernanin, %50a suposatuko du, Atez Atekoaren gastua 1,7 milioiokoa izango delako, eta zergen bidez

jasotakoa 814.500 eurokoa.

Politikoen artean argitzea espero dut. Nik dakidanez, martxan jartzen diren sistema berri guztiek dute gastua: langileetan, ekipamenduetan, finantziazioan eta amortizazioan. Helburua informatzea baldin bada, esaten da gastu hauek datozen urteetako aurrekontuetan banatu behar direla; bazterrak nahastu nahi badira, urte batean sartzen da guztia, eta ez dago matraka ematen jarraitu beharrik.

2014an zabortege guztiak itxi eta deskontaminatuko dira, eta horrek gastu izugarria izango du. Atez Atekoa duten herriek ez badute kontaminatzen, bidezkoa al da diru hori poltsa komun bate-tik ateratzea? Hau da, kontaminatzen dutenen eta ez dutenen poltsatik?

Ez al da justuagoa, gaurtik hasita, oraindik organikoa zabortegira eramaten dutenei tonelada bakoitzeko kanon bat jartzea? Europako herrialde gehienetan, organikoa zabortegira botatzen dutenei kobratu egiten zaie, eta hori, botatzen ez dutenei ematen zaie, sari gisara, Gipuzkoan eta Austrian izan ezik; bigarrenengoan beharrezkoa ez delako, Atez Atekoa obligaziozkoa delako, hau da, inposatua dagoelako; eta aurreneko kasuan, jarrera onak saritzearen guztiz kontrakoa egiten delako.

Gipuzkoan kanon hori kobratuko balitz, eta Atez Atekoa egiten den herrietan banatuko balitz, Katalunian bezala, H1ek iragarritako defizita alderantziz egingo litzateke.

Iulen Lizaso Aldalur
(*Erredakzioan euskeratua)

❖ GAZTE TXOKOA

Gabonetako futbolin txapelketa, gaur

Hernaniko Gazte Txokoak eta Kale Hezitzaileek Gabonetako futbolin txapelketa antolatu dute. Gaur izango da, Atsegindegina, eta LH 6 eta DBH 1 eta 2ko ikasleek har dezakete parte, baldintza bakarra ikasturte honetako ikaslea izatea da. Izena aldeztu aurretik eman behar zen. Hala ere, 11-16 urte bitarteko gazteak futbolin ibiltzeko aukera izango dute, txapelketatik kanpo utziko diren beste futbolin batzuetan. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

III URTEURRENA † JOXE ARANBURU ARBIZA

JAUNA

2007ko abenduaren 29an hil zen Hernanin, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -

EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte! **GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den Urtebetetze mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 29an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lan egiteko eskaintzen da: sagardotegitan, ostalaritza... Harremanetarako: 617 630 528

Pisu bat alokatzen dut Hernanin, Karmelo Labaka kalean. 2 gelakoa, kalefakzio indibidualarekin. Dotorea. 700 euro. Bankuko abala behar da. Tlf: 600609754

Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jeiki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reiki, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietia 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Hernaniko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak 2010eko abenduaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran erabaki zuen Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Testu Bategina behin betiko onartu ahal izateko baldintza hau jartzea: (CN) FL.07 arean eta (CN) SG.05. eta (CS) EL.02 sektoreetan egindako aldaketak jendaurrean ikusgai jartzea, osoko bilkura horretan dokumentuari behin-behineko onarpena eman ondoren.

Hori dela eta, aldaketa horiek jendaurrean ikusgai egongo dira hilaibetez, iragarki hau argitaratzen den azken egunaren biharamunetik aurrera kontatuta, nahi duten guztiek beren interesen alde bidezko jotzen dituzten alegazio edo erreklamazioak aurkez ditzaten.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan argitaratuko da.

Hilaibeteko epe horretan espedientearen Hirigintzako udal bulegoetan egongo da ikusgai (Gudarien plaza z.g.) eta alegazio idazkiak sarrera erregistroan aurkeztu behar dira (udaletxean bertan), Udalbatzako alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hernanin, 2010eko abenduaren 27an
Marian Beitiaarrangoitia Lizarralde
Alkatea